

azperran zer?

udal aldizkaria

182. zenbakia



ETXEBIZITZA PREMIARI ERANTZUTEKO EGITASMOA OSATU DU UDALAK

**Herritarren etxebizitza beharra
aztertzeke bi ikerketa egin ostean, epe
motz edo ertainean, eskaeren arabera
garatzeko tipologia desberdineko
etxebizitza babestuen eskaintza
zehaztu du; izen ematea irekita dago**



azperrikoudala
denon artean



TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailtza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75



BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 1, 7, 12, 19, 26 eta 30

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 2, 3, 4, 11, 22, 25 eta 28

BERISTAIN

Urbitearte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 6, 13, 18, 23, 24 eta 29

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Ekainaren 8, 14, 16, 17 eta 21

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 5, 9, 10, 15, 20 eta 27

ALE HONETAN ZER?

Sarrera	3
Aurrekariak - azterketa.....	4
Emaitzak	6
ELE	8
ESKAITZAK	10

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala.
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Maketazioa eta testuak:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

**AZPEITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN
JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI
HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85
(ALKATETZA) TELEFONOAN.**

AZPEITIA EZAGUTZEN



**INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ,
AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO
DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU
AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU
AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!**

MADALENAKO OSPITALEA



Madalenako ospitalea gaixotasun kutsagarriak zituztenentzat eta legenarra zutenentzat zen batez ere. Zeregin horretarako oso ongi kokatuta zegoen, herri irteeran, harrasitik kanpora eta ibaiaren ondoan. 1535erako bi zeregin nagusi zituen ospitaleak: epidemia garaian gaixotasun kutsakorrek eta legenarra zituztenentzat lekua zen, bestetik behartsuenentzako aterpea zen. Denborarekin Madalenako ospitaleak Buztinzuriko ospitaleari utzi zion lekua. Buztinzuriko ospitalea edo Azpeitiko lehenengo Erruki etxea 1508an fundatu zen, egun Olazko Amaren plazatxoan dagoen inguruetan. Bere hasierako ondasunen artean 15 ohe eta sagardoa edukitzeko 4 upel aipatzen dira beste zenbaiten artean. Orokorrean nahiko ondasun kaskarrak ziren. Udalak zuen ospitalearen patronatua.



ETXEBIZITZA BEHARREI ERANTZUTEKO NEURRIAK HARTZEN

Azpeitiko herritar gehienentzat, garrantzitsua da etxe bat izateko aukera edukitzea. Hori da, hain justu, Azpeitiko Udalak duela bi urte egin duen ikerketaren ondorioetako bat. Inguru geografikoaren testuinguru soziologikoa, demografikoa eta ekonomikoa aztertu eta gero, udalaren azken bi agintaldietako erronka izan da etxea izateko eskubidean laguntzea. Aitor Bereziartua zinegotziak dio “etxea ezinbestekoa da herritarrentzat; garrantzia du herriaren garapenean, eta zer esanik ez kohesio eta egituratze sozialean, ekonomian, babes sozialean, eta ingurumenean”.

Udalerrian dauden beharrak identifikatu ondoan, 2012. urtetik hona horiei erantzuteko neurriak hartu ditu Azpeitiko Udalak. Ikerlanak azalean jarri ditu herritarren iritziak eta nahiak. Euren bizi-kalitatean eragite aldera, ezinbestekotzat jotzen du udalak merkatu libreko etxez gain, etxe babestuak edo publikoak eskaintzea. Etxe hutsak abiapuntu hartuta, politika berri eta aurrerakoiak jarri ditu abian;

etxe hutsetan OHZren erreklama jarri eta etxeen alokairurako laguntzak urtero eskaintzen dituen arren, aski ez delakoan dago udala, eta, krisiaren osteko datu baikorrak ikusita, bestelako pauso bat ematea erabaki du.

Herritarrei etxe duin, egoki eta irisgarriak eskaintze aldera, etxe babestuak eraikiko dira Azpeitian, batik bat zailtasunak dituztenentzat merkatu libreko etxeak lortzeko, dela alokairuzkoak eta dela salmentakoak. Aurten, etxebizitzak eraikitzeo proiektuak eta tramiteak egin ostean, 2019. urte hasieran etxeak eraikitzen hastea aurreikusten du udalak. Hala ere, pausoak beharren arabera emango dira; hau da, etxebizitzak faseka egiteko planifikazioa egin du udalak eta hasiera batean 8-10 urte bitartean garatzeko aurreikuspena badu ere, eskarien arabera faseak azkarrago edo motelago jarriko dira abian.

Hala, urteotako etxebizitza-plana zehazteko orduan, aintzat hartu du udalak, besteak beste, alde zaha-

“BIZI-KALITATEAN ERAGITE ALDERA, EZINBESTEKOTZAT JOTZEN DU UDALAK MERKATU LIBREKO ETXEEZ GAIN, ETXE BABESTUAK EDO PUBLIKOAK ESKAINTZEA”

rreko garapenean eta eraldaketan eragitea: karrera zaharrak erosi eta etxebizitza babestuak eskainiko ditu datozen urteotan Bustinzuriko Errebalean, Done Jakue kalean eta Elizkalean; alokairurako edo erosteko. Horretaz gain, Esklabak bezalako raikin historiko zaharrari irtenbidea eman eta herritarren beharrei erantzuteko aukera bilatu da bertan 54 etxebizitza eginez. Horrela, gainera, ondare historiko eta soziala balioan jartzea lortu nahi da.



ETXEBIZITZA ESKAINTZA OSATZEKO DINARRIAK JARRITA, PAUSO GARRANTZITSUA

Etxebizitzaren Udal Planean jarritako helburuak lortzeko, udal-araudia egokitzen eta eguneratzen dihardu Azpeitiko Udalak. Politika berrien abiapuntuan, ondasun higiezinengaren errekargua kobratzen hasi zen etxe hutsetan 2013. urtean; helburua da etxe hutsak merkaturatzea.

Horrez gainera, 2014. urteaz geroztik, etxeak alokatzeko laguntzak ematen ditu udalak herriko zenbait kolektiborentzat -besteren artean, gazteak, bananduak, ezinduek eta alargunak-, eta horretarako 150.000 euro bideratzen ditu urtean.



**“ETXEBIZITZA ESKAINTZA
ZEHAZTEKO EZINBESTEKOAK
IZAN DIRA ETXEBIZITZA PREMIAREN
INGURUKO ETA
EGOERA SOZIEKONOMIKOAREN
AZTERKETAK”**

Zifra hori ezinbestekoa da etxebeharri erantzun eraginkor bat emateko; krisiak eztanda egin eta gero, 2014an hasi zen udala etxeetarako laguntzak ematen. Lehen urtean gazteei zuzenduriko eskaintza bazen ere, urtez urte eskaerak aztertu ostean kolektibo berriei zabaltzen joan da laguntza. Horretaz gain, urtez urte eskaerak gero eta gehiago izan dira. Lehen urte hartan 64 laguni eman zitzaizen laguntza, eta azken urteotan 80 lagun inguru izan dira onuradunak. Eskaera kopuruaren igoera ikusita, Udalak diru-laguntzaren poltsa 100.000 eurotik 150.000 euro igo ditu.

**“LANGABEZIA TASA
%8AREN AZPITIK DAGO;
HAIN JUSTU, ESKUALDEKO,
GIPUZKOAKO ETA EAEKO
TASAREN AZPITIK”**

AZTERKETAK, ESKAINTZAREN OINARRIAN

Diru laguntzak emateko orduan, ordea, garrantzitsua da jakitea zer behar espezifiko dagoen. Horregatik, 2016an jarri zuen abian Azpeitiko Udalak etxe-beharra neurtzeko ikerketa. Izan ere, Josu Labaka udaleko zinegotziaren aburuz, jakin nahi zuten “herritarrek nolako premiak zituzten, baita etxe-tipologiaren aldetik ere, etxebizitzaren politikari behar bezala erantzuteko”. Batetik, Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta garapenerako behategiak, herriko etxebizitzaren inguruko datu objektibo eta teknikoak aztertu zituen; eta, bestetik, teknikariek ausaz aukeratutako 700 herritarri inkestak egin zitzaizkien telefono-bidez euren behar, iritzi eta proposamenak jasotzeko gaiaren inguruan.

Emaitzak interpretatzeko orduan, Leire Goenaga zinegotziak dio garrantzitsua dela herritarren egoera ekonomikoa aztertzea: “Azken urteotan, langabezia-tasaren bilakaera positiboa izan dugun arren, ez gara oraindik krisi aurreko egoerara heldu; hala ere, langabezia tasa %8aren azpitik dago; hain justu, eskualdeko, Gipuzkoako eta EAEko tasaren azpitik. Hobekuntza nabaria izan da; kezka nagusia, ordea, herritarren lan-baldintzak dira orain”.

225 ETXEBIZITZA BEHAR DIRA EPE MOTZEKO ETXEBIZITZA PREMIEI ERANTZUTEKO

Azken hamarkadan, Azpeitiko biztanle-kopurua Gipuzkoan baino biziago eta Urola-Kostan baino apalago igo da (%5,7). Hazkunde positibo horren testuinguruan, ordea, Azpeitian murritzut egin da gazteen kopurua, Gipuzkoan eta Euskal Herrian bezala. Joera hori arrunta da egungo ezaugarri sozio-demografikoak dituen Europaren baitan.

Azpeitiko biztanleriaren prospekzioak udalerriak biztanleria bolumena galtzeko arriskuaz ohartarazten badu ere, aurreikusi daitekeen galera, edonola ere, bere proportzioan ez da Gipuzkoa edo Euskal Herri mailan aurreikusten den tamainakoa. Galera hori biztanleriaren zahartze prozesuaren eta jaiotza tasa baxuaren ondorio da, ez emigrazioaren ondorio (gertaera sozioekonomiko larrik egon ezean). Biztanleria galtzeko arriskua egon arren, mugimendu naturalari soilik erreparatzen badiogu, gazteen kopuruak zertxobait gora egin dezakeela ikus daiteke

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten 371 azpeitiarrak etxebizitza eskuratuz gero bizitzera norekin joango liratekeen kontuan hartuta, 108 etxebizitza beharko lirateke bakarrik bizitzeko asmoa adierazi duten gazteentzat, 78 bikotean biziko liratekeenentzat eta 39 lagunekin joango liratekeenentzat. Guztira hortaz



(118 gazte gehiago). Azken urteotako migrazio saldoa mantenduz gero, gazteak gehiago ere izan daitezkeela ondorioztatu daiteke.

Beraz, Azpeitiak epe motzera belaunaldi gazteak ordezkatzeko gaitasuna du. 2021erako 30-34 urte bitarteko gazteak %6,4a murritzut daitezkeen bitartean, 18-24 urte bitartekoak %16,7 hazi daitezke. 2026rako berriz, 30-34 urteko gazteen galera %16koa izan daitekeela aurreikusten da, baina 18-24 urte bitartekoen igoera %23,6koa izango litzateke.

Herritarrek erantzundako galdeketa-aren emaitzen arabera, eta etxea izateko premiari dagokionez, herriko gazteen artean, 371 lagun inguruk behar dute etxe bat. Horietatik 108 bakarrik joango lirateke bizitzera edo bikotekidearekin (78 lagun) edo adiskideekin (39 lagun). Horrek arabera

225 gazterentzat etxeak beharko liratekeela behar horri erantzuteko.



Horrez gain, familiaren beharrei erantzuteko etxez aldatu beharrean direla adierazi du beste jende multzo batek; orotara, 110 bat familia inguruk. Inkestako emaitzek agerian jartzen dute herritarren iritzia etxebizitza-politikaren arloan. Etxe duin eta egoki bat izatearen aldeko agertu zen ia %100, eta ez hori bakarrik: %62rentzat gairik larrienetarikoa da hori, eta, etxea behar duten gazteen kopurua galdetuz gero, gehiengoek (%93) uste dute gazte asko edo dezente daudela horren premian. Horrez gain, azpeitiarrak uste dute baliabide gutxi dituzten kolektiboei lagundu behar zaiela lehenik, eta %60k gazteengan jarri dute arreta. Bi kolektibo horiez gain, herritarrek uste dute bananduta dauden pertsonen edo seme-alabak etxean dituzten familiei ere lagundu behar zaiela.

“ANIZTASUN
HANDIAGOA DAGO,
ETA HORREK GURE ERRONKA
IZATEN JARRAITZEN DU”

Hori ikusita, udalak izan beharko lukeen jarrerari buruz ere galdetu zitzaien herritarrei, eta ordura arte erakundeak hartutako neurriei buruz erantzun zuten: %94k bat egiten du udalak ahal duen guztia egin behar duela herritarren etxebizitzarako eskubidea bermatua egon dadin. Hori kontuan izanik, udalaren erreakzioa izan da etxe hutsak merkaturatzeko neurriak hartzea, eta horrekin ados edo oso ados azaldu da %86. Gehiengoan ustetan, edonola ere, administrazioak babes ofizialeko etxeak eskaini beharko lituzke. Horien artetik, gehiengoak (%70) nahia go du etxe horiek errentan egotea, eta ez jabetzan. Bestetik, etxebizitza babestuez eta gazteentzako eredu komunitario batez galdetuta ere, eredu berrien aldeko iritzia erakusten dute herritarrek.

Datu horiek guztiek agerian jartzen dute Azpeitian nolako beharra dagoen etxebizitzaren arloan: “Azterketek agerian jarri dute mode desberdinetako babestutako etxebizitzak behar direla Azpeitian. Hala, alokairurako zein salmentarako etxeak egiteko konpromisoa dugu. Etxe horiek babestuak dira eta prezioak ere libreko merkatukoak baino baxuagoak dira. Hala, herritarren bizi kalitatean eragin nahi dugu. Herritarren zenbat

ETXEBIZITZA ARAZOAREN LARRITASUNA



**“HERRITARREN
GEHIENGOAREN USTETAN,
UDALAK BABES OFIZIALEKO
ETXEAK ESKAINI BEHARKO
LITUZKE”**

eta alokairu edo hipoteka baxuagoa izan egunerokoak sortzen dituen goinontzeko gastuei aurre lasaiago egingo diete, eta azpeitiarren egunerokoa hobea izatea da gure helburua”, azaldu du Leire Goenaga ogasun zinegotziak.

Egon da bilakaerarik herritarren irizietan; izan ere, 2008tik hona, larritasun puntua galdu du etxebizitzaren alorrak euren artean. Horrek azaleratzen du gaur egun larriagoak diren beste arazoak daudela tarteko.

Gainera, alokairuzko etxeek aurrea hartu diete jabetzakoei herritarren nahiei dagokienez. Edonola ere, etxebizitza premiak behera egin du nabarmen: 2008an 528 lagunek behar zuten etxe bat, eta, gaur egun, 225ek.

Alde horretatik, udala kontziente da bizi-ereduak nabarmen aldatu direla azken urteotan. “Aniztasun handiagoa dago, eta horrek gure erronka izaten jarraitzen du”, gaineratu du Bereziartua udal ordezkariak.




ETXEBIZITZA BERRIEK SOR DEZAKETEN INPAKTU LINGUISTIKOAREN AZTERKETA

Jakina da Azpeitia euskaraz bizidena herria dela: herritarren %84 da euskalduna, eta, orotara, 14.812 biztanle biltzen ditu. Azken bi hamarkadetan, ordea, euskaldunen kopuruak %4 puntu egin du behera. Eredu bateko euskararen egoerari kalterik ez egiteko, ELE (Eragin Linguistikorako Ebaluazioa) deituriko tresna garatu zuten aurreko agintaldian GFAk eta UEMak elkarlanean, zeinak helburu duen esku hartze batek izan dezakeen eragin linguistikoa aztertzea.

Azpeitiko euskararen egoera bere horretan mantentzeak duen garrantzia kontutan hartuta, egitasmo honek aztertu du eraikiko diren etxeek zer-nolako eragina izan dezaketen hizkuntza errealitatean. Xedea da balizko eragin linguistikoa aurreikustea, hura identifikatzea eta ebaluatzea; izan ere, udal ordezkariatzat garrantzitsu da euskararen egungo egoerari eustea herrian: "Udalerri euskaldun asko erdaluntzen ari dira, eta ulertzen dugu lurralde antolaketak eragin zuzena

duela. Horregatik sortu dugu metodologia hori, Azpeitiaren moduko udalerri euskaldun batean, etxekopuru handi bat sortzeak hizkuntza-alorrean zer ondorio ekar ditzakeen ikusteko", esplikatu du Labaka zinegotziak. Haren aburuz, udalaren eskaintzak "onurak ekar ditzake". Horrez gainera, euskararen eta euskal hiztun-elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea da ELE programaren xedea.



**“UDALERRI EUSKALDUN ASKO
ERDALTUNTZEN ARI DIRA,
ETA ULERTZEN DUGU
LURRALDE ANTOLAKETAK
ERAGIN ZUZENA DUELA”**

Babes publikoko etxebizitzak esleitzeko ohikoak diren hainbat neurri hartuko dira eta horrek lagunduko euskararen erabileraren inguruko eragina murrizten; esaterako, epe motz batean herrian erroldatuta egotea eskatuko da; horrek etxebizitzak herritarrek eskuratzea ekarriko du.

Etxe libreen kasuan, orain arte eraiki diren etxe sailak hartu dira erreferentzia moduan proiektio osoa egiteko orduan. Datu horiek erakusten dute jendea herritik bertatik edota inguruko herrietatik etorriko dela ehuneko handi batean.

Etxe publikoei dagokienez, eragin linguistikoaren intentsitatea garran-

tzi gutxikoa da. Eragina gune jakin batzuetan nabarituko litzatekeela ikusten da, jatorri anitzeko herritarren biztanleria gune zehatz batzuetan nabari delako. Ondorioz, gune horietan eraikiko diren etxebizitzetan neurriak hartuko direla iragarri dute.

Etxe libreen kasuan, euskararen ezagutzan eta erabileran eraginik ez duela izango espero da; izan ere, orain arteko erroldak erakusten dute bertakoek eta ingurukoek erosi dituztela etxeak kopuru handi batean. Eragina izatekotan, eraikuntza garaian nabari dela diote. Horregatik uste dute garrantzitsua dela hizkuntza-irizpideak ezartzea.

Etxe pribatuei dagokienez, horien prezioa herritar guztien beharreta-

ra egokitzen ez bada ere, bertako askoren eros ahalmenera egokitzeko dela jasotzen du lanak, eta horrek bertako hizkuntzaren ezagutza-tasa nabarmen ez jaitea eragiten du. Hizkuntza paisaia, zerbitzuen eskaintza eta komunikazioei dagokienez, eragina izan dezakeela aurreikusi da, izan ere, eskriba ondoko etxeen azpialdean lokal komertzialak irekitzeko aukera egongo da, eta bat zabalera handikoa izango da. Hori horrela, euskararen presentzia bermatzeko, esku hartzeak egiteak garrantzia berezia izango du. Hizkuntzan eragin zuzena izango duten parametroak ere jasoko ditu planak; besteak beste, eraikin berrietan atari bakoitzeko lagunkopurua zaintzea, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanean jartzeko, eta espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea eta adin-nahasketa bultzatzea. Aipatutako neurriak ondo betetzen direla egiaztatzeko, Jarraipen Batzordea osatuko dute bai Azpeitiko Euskara Batzordeak, bai UEMAko ordezkariak eta bai udal ordezkariak. Labakaren hitzetan, “hartutako neurriek ez dute eragin ezkorrik islatzen. Neurri eraginkorrenak dira euskararen egoerari eusten laguntzeko eta inpaktu linguistikoa saihesteko”.

ETXEBIZITZAREN INGURUKO DATUAK

Etxebizitza kopurua:

68; 1.fasean 29; 2.fasean 39

Mota:

Babes ofizialeko etxebizitzak

Etxebizitzaren deskribapena:

1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuarekin

Zozketaren data:

2018 amaiera – 2019 hasiera

PREZIOA:

Etxebizitza arrunta:

108.000 €tik 162.000 €ra (BEZ gabe)

Etxebizitza egokitua:

162.000 €tik 203.000 €ra (BEZ gabe)



▼ PLANOAK



UDALETXEAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2018/07/13

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Etxebizitza jabetzan ez izatea (salbuespenak salbuespen)
- Errolda Azpeitian: azken 15 urtetan 6 urtez (2018/01/01az aurretik) azken bi urtetan jarraian (2018/01/01az aurretik)

- Diru-sarrerak (2017. urtekoak):
9.000 - 39.000 €

- Etxebiden, salmenta aukeran, izena emanda egotea

- Informazio gehiago. Udal erakusketa aretoko informazio bulegoan

- Izen ematea, udaletxean



ETXEBIZITZAREN INGURUKO DATUAK

Etxebizitza kopurua:

61; 1.fasean 33; 2.fasean 28

Mota:

Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza
Tasatuak

Etxebizitzaren deskribapena:

2 eta 3 logelako etxebizitzak
trastelekuarekin

Zozketaren data:

2018 amaiera – 2019 hasiera

PREZIOA:

Etxebizitza arrunta:

159.000 €tik 221.000 €ra (BEZ gabe)

Etxebizitza egokitua:

223.000 €tik 229.000 €ra (BEZ gabe)

▼ PLANOAK



UDALETXEAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2018/07/13

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Etxebizitza jabetzan ez izatea
(salbuespenak salbuespen)
- Errolda Azpeitian:
azken 5 urtetan 3 urtez (2018/01/01az aurretik)
azken 15 urtetan 5 urtez (2018/01/01az aurretik)
azken 10 urtetan Azpeitian lan egin izana

- Diru-sarrerak (2017. urtekoak):
25.000 - 50.700 €
- Udaletxean eskaria erregistratua izatea
uztailaren 13rako
- Informazio gehiago. Udal erakusketa aretoko
informazio bulegoan
- Izen ematea, udaletxean

ETXEBIZITZAREN INGURUKO DATUAK
Etxebizitza kopurua:

4 etxebizitza

Mota:

Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza
Tasatuak

Etxebizitzaren deskribapena:

3 logelako etxebizitzak trastelekuarekin

Zozketaren data:

2018 amaiera – 2019 hasiera

PREZIOA:

155.000 €tik 181.000 €ra (BEZ gabe)


▼ PLANOAK

UDALETXEAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2018/07/13
BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Etxebizitza jabetzan ez izatea (salbuespenak salbuespen)
- Errolda Azpeitian: azken 5 urtetan 3 urtez (2018/01/01az aurretik) azken 15 urtetan 5 urtez (2018/01/01az aurretik) azken 10 urtetan Azpeitian lan egin izana
- Diru-sarrerak (2017. urtekoak): 25.000 - 58.500 €
- Udaletxean eskaria erregistratua izatea uztailaren 13rako
- Informazio gehiago. Udal erakusketa aretoko informazio bulegoan
- Izen ematea, udaletxean



ETXEBIZITZAREN INGURUKO DATUAK

Etxebizitza kopurua:

4 etxebizitza

Mota: Erregimen Orokorreko Udal
Etxebizitza Tasatuak

Etxebizitzaren deskribapena:

3 logelako etxebizitzak trastelekuarekin


Zozketaren data:

2018 amaiera – 2019 hasiera

PREZIOA:

138.000 €tik 167.000 €ra
(BEZ gabe)

▼ PLANOAK



UDALETXEAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2018/07/13

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Etxebizitza jabetzan ez izatea (salbuespenak salbuespen)
- Errolda Azpeitian:
azken 5 urtetan 3 urtez (2018/01/01az aurretik)
azken 15 urtetan 5 urtez (2018/01/01az aurretik)
azken 10 urtetan Azpeitian lan egin izana
- Diru-sarrerak (2017. urtekoak):
25.000 - 58.500 €
- Udaletxean eskaria erregistratua izatea
uztailaren 13rako
- Informazio gehiago. Udal erakusketa aretoko
informazio bulegoan
- Izen ematea, udaletxean

ETXEBIZITZAREN INGURUKO DATUAK
Etxebizitza kopurua:



45

Mota:

Zuzkidura bizitokia

Etxebizitzaren deskribapena:

1-2 logelako etxebizitzak


▼ PLANOAK

IZEN EMATEKO DEIALDIA AURRERAGO EGINGO DA
BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Etxebizitza jabetzan ez izatea (salbuespenak salbuespen)
- Errolda Azpeitian: Azpeitian erroldatuta egotea

- Diru-sarrerak: 12.000 - 39.000 €
- Informazio gehiago: Udal erakusketa aretoko informazio bulegoan
- Izen ematea, etxeak eraikitzen hasi ostean egingo da deialdi publikoa



ETXEBIZITZAREN INGURUKO DATUAK

Etxebizitza kopurua:

12

Mota:

Alokairu soziala

Etxebizitzaren deskribapena:

2 logelako etxebizitzak

▼ PLANOAK



IZEN EMATEKO DEIALDIA AURRERAGO EGINGO DA

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Etxebizitza jabetzan ez izatea (salbuespenak salbuespen)
- Errolda Azpeitian: Azpeitian erroldatuta egotea

- Diru-sarrerak: 3.000 -25.000 €
- Informazio gehiago. Udal erakusketa aretoko informazio bulegoan
- Izen ematea, etxeak eraikitzen hasi ostean egingo da deialdi publikoa

ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN INFORMAZIO BULEGOA



UDAL ERAKUSKETA ARETOAN


BETHARRAM

Ekainaren 4tik 22ra

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara

17:00etatik 20:00etara



ZALANTZAK ARGITU EDO INFORMAZIO OSOAGOA JASOTZEKO:

Udal erakusketa aretoan eta 943 15 71 83 telefonoan
edo azpeitiaberritzen@azpeitia.eus helbidean.



ARRETAZ BEGIRATU!

Etxebiden izena emandako kasuetan, begiratu
ondo zein aukeraketa duzun egina eta promozio
hauetarako aldatu beharra duzun.



ESKARIA ERREGISTRATZEKO

Udaletxean

Astelehenetik ostiralera 7:30etik 15:30era

Larunbatetan, 9:00etatik 12:30era

(uztailean eta abuztuan izan ezik)